

Zer alde daude

profil pertsonalaren eta enpresa-profilaren artean?



Profil pertsonala

- Facebooken partekatzeko botoiak, edukiak argitaratuko ditu zure profil pertsonalean
- Profilean ez dago harremanetarako botoirik.
- Ez da sartzen negozioaren kategoria profilean.
- Ezin da helbide fisiko klikagarririk sartu; biografiaren testuan bakarrik jar dezakezu.
- Ezingo duzu zure kontuaren eta edukien estatistiketara sartu.
- Profil honekin ezingo dituzu zure kontuan argitaratuta dituzun edukiak promozionatu. Instagrameko iragarki-administratzailearen bidez soilik sortu ahal izango dituzu iragarkiak.



Enpresaren-profila

- Facebooken partekatzeko botoiak zaleen orri batean argitaratuko ditu zure edukiak, ez zure profil pertsonalean.
- Kontaktatzeko botoi bat sartzeko aukera ematen dizu.
- Zure profilaren biografian zure negozioaren kategoria agertuko da.
- Zure negozioaren helbide fisikoa zure biografian klikagarria izango da.
- Zure kudeaketaren eta edukien eraginkortasuna neurtzeko metrikak erabil ditzakezu.
- Edukiak promozionatu ahal izango dituzu zure audientziara iristeko eta zure emaitzak sustatzeko.

Zer urrats egin behar ditut nire kontu pertsonala enpresa-kontura aldatzeko?

1

Hautatu erabili nahi duzun kontua enpresaren profila aktibatzeko (hori Instagramen hainbat kontu badituzu).

2

Joan konfiguraziora

3

Hautatu "aldatu enpresaren kontura" aukera. Aukera hori ateratzen ez bazaizu, Instagrameko zure aplikazioa eguneratu beharko duzu.

4

Logeatu Facebookekin, zure Instagrameko kontua zaleen orri batekin konektatzeko. Bat ez baduzu, sortu egin beharko duzu.

5

Konfiguratu enpresen profila zure posta eta helbidearekin.

